

**<< Euskal Baleta >>**

**I. Goirizelaia**

**Área 2- Creación y Expresión Artística**

**2. Arloa: Sorkuntza eta Espresio Artistikoa**

**(Euskarazko bertsioa - Versión en euskera)**

**Febrero, 2003ko otsaila**

# **EUSKAL BALETA**



# **TXOSTENA**

## AURKIBIDEA

<b>1</b>	<b>AURREKARIAK.....</b>	<b>4</b>
<b>2</b>	<b>NAZIOARTE MAILAKO EREDUAK.....</b>	<b>8</b>
2.1	ERREGE BALET BRITAINIARRA.....	8
2.2	MONTE-CARLOKO BALETA.....	9
2.3	NEW YORK CITY BALLET .....	11
2.4	AMERICAN BALLET THEATRE .....	12
2.5	SAN FRANTZISKOKO BALETA .....	13
2.6	ESPAINIAKO BALET NAZIONALA .....	14
2.7	VÍCTOR ULLATEREN BALETA .....	15
2.8	DANTZA KONPAINIA NAZIONALA .....	16
2.9	BIARRIZKO BALETA .....	16
<b>3</b>	<b>EUSKAL HERRIKO DANTZAREN GAUR EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA...17</b>	
3.1	ADIERAZLEEN PROPOSAMENA .....	18
<b>4</b>	<b>HAUSNARKETA.....</b>	<b>19</b>
4.1	HELBURUAK ETA LEHENTASUNAK .....	19
4.2	JARDUERA-ILDOAK .....	20
4.3	PROIEKTUAK.....	20
4.3.1	<i>Euskal Baleta definitzea eta sortzea.....</i>	<i>21</i>
4.3.2	<i>Dantzariak trebatzeko azpiegitura egokia definitzea eta sortzea .....</i>	<i>23</i>
4.3.3	<i>Baletari buruzko sentsibilizazio-kanpaina egitea .....</i>	<i>23</i>
<b>5</b>	<b>ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK .....</b>	<b>23</b>

## 1 Aurrekariak

---

Dantza gizakiaren beraren esistentzia bezain zaharra den arren, baletaren historiaren abiapuntutzat *"Ballet Comique de la Reine"* hartzen da. Balet hori Baltazarini di Belgioioso (edo Balthazar Beaujoyeux, Frantzian) koreografo italiarrak sortu zuen eta Parisko Petit Bourbon aretoan aurkeztu zuten 1581eko urriaren 15ean. Maisu-lan horrek Frantzian zenbait hamarkadatan arrakasta izan zuen ikuskizun-modelo bat ekarri zuen: *ballet de cour* delakoa, dantza, musika, poesia, eszenografia eta eszenoteknika bateratzen ziren ikuskizuna; horietako artistak nobleak ziren eta nobleziarentzako antzezten zuten. Obra Frantziako Enrique III.aren ama erreginak, Katalina Medicik, eskatu zuen, Joyeuse-ko dukearen eta Mile de Veaudemont erregearen koinataren arteko ezkontza zela eta.

Baletaren historian giltzarri izan den pertsona, dudarik gabe, Frantziako Luis XIV.a da; bi pasio zituen hark: bere burua eta antzerkia. Hamahiru urterekin gortean dantzatzen zuen eta 1653an *"Ballet de la Nuit"* obraren paper nagusia jokatu zuen, eguzki gisa mozorrotuta eta zibilizatutako mundua inguruan biraka zuela. Batzuek uste dute *"eguzki-erregea"* izengoitia, hain zuzen ere, antzeppen horretatik datorkiola.

Luis XIV.a baletari "positiboki lotuta" zegoen. Gazte zela, hogeita hamar bat baletetan parte hartu zuen; beraz, uste izatekoa da dantzarako talentua bazuela. Ikuskizun handiak antolatzen zituen bere jauregietan –batzuetan gau osoa irauten zuten–, eta, horretarako, Giovanni Battista Lulli musikari eta dantzari italiarraren laguntza izaten zuen.



Giselle

Bere erregealdian, Frantzia baletaren munduko liderra zen eta ordura arte Italiak izan zuen zuzia eskuratu zuen. Baleta hitzaren jatorria ikusi besterik ez dago. "Ballare" italierazko hitzetik dator, baina, hala ere, herrialde guztietan egokitu dena frantseseko hitza da.


Sarrera honetan, nahitaez aipatu behar dugu dantzari handi bat, baletaren etorkizunari egin zion ekarpenarengatik: Jean Georges Noverre. 1727an jaio zen, eta 1760an *"Letters sur la Danse"* izeneko dokumentua argitaratu zuen Stuttgarten; dokumentu hori funtsezko bilakatu zen baletaren historiako.

Baleta prest zegoen mugimendu erromantikoan bete-betean sartzeko. Besteak beste, *"Robert le diable"* (seguru asko, balet erromantikorako lehen pausoa), *"La Sylphide"* (Marie Taglioni *ballerina* ospetsuak bereziki prestatutako koreografia) eta *"Giselle"* XIX. mendearen hasieran sortu ziren.



Beltxargen aintzira

XIX. mendearen erdialdera, baletaren arrakasta Errusiarira iritsi zen. Horrela, Egipton hasi, Greziatik pasatu, Greziatik Italiara joan, ondoren Frantziara pasatu eta, azkenik, Errusian arrakasta izan zuen bidaia handia mailarik gorenera iritsi zen. Marius Petita dantzari gazteak une horretan egin zitekeen eskaintzarik onena jaso zuenean hasi zen interesa galtzen balet erromantikoa Parisen eta Londresen. 1847an, San Petersburgoko teatro inperialeko zuzendariak "lehen danseur" izateko gonbita egin zion, urteko 10.000 frankoko soldataren truke. Rusia oinarriak finkatzen ari zen, 60ko hamarkadan mendebaldeko munduko dantzaren erdigune bilakatzeko. "Kixote", "La Bayadère", "Beltxargen aintzira", "Loti ederra" eta beste zenbait balet klasiko handik Errusiako baletaren garai horretan ikusi zuten argia.



Kixote

Lan horiek **Vsevolozskyt-Petita-Tchaikovsky** hirukotearenak dira, eta, haiek lanean ari zirela, beste hirukote bat –**Diaghileve, Fokine eta Stravinsky**– dantzaren agertokian azaltzeko puntuan zegoen. Baletaren kontzeptuaren beste iraultza baten hasiera izan zen. Hirukote horren eskutik sartu zen dantzaren munduan dantzari onenetako eta polemikoetako bat: **Vaslav Nijinsky**. Hauek dira konpositore haiek egindako lan garrantzitsuenetako batzuk: "Inauteria", "Scheherazade", "Arrosaren espektroa" eta "Suzko txoria".



Vaslav Nijinsky

Dudarik gabe, gaur egun dantza arte-motatzat jotzen bada, Diaghilevengatik eta haren ingurukoengatik da.

Dantzari buruzko zertzelada horiek eman ondoren, ezinbestekoa da Euskal Herriko dantzaren egoera zein den aztertzea. Ezin dugu, inola ere, baletarako egitura antolatu bati buruz hitz egin, baina dantzak beti izan du eta oraindik ere badu zeregin garrantzitsua gure gizartean.

Zalantzarik gabe baieztatu dezakegu euskaldunen zaletasun handietako bat dantza zela eta oraindik ere badela, bai herri mailan, bai elite mailan ere. Horri dagokionez, beti iruditu zait deigarria Voltaire-k bere *“Contes Philosophiques”* delakoetan haxe aipatzea *“Pirinioen magalean bizi diren, edo hobeto esanda, salto egiten duten herriak, euskaldunak edo baskoiak deitzen dieten horiek”*. Baieztapen horretatik ondoriozta daitekeenez, euskaldunek dantza egiten dugu ia gauza guztietarako.



Zuberoko maskarada

Gure dantzek funtsean gure mugen barruan iraun badute ere, dantzari on izatearen famaren eta gure pausoen kalitatearen berri izan dute dantzako maisu handiek. Gainera, “comedies-ballets” izenekoetan (Moliereren eta Lulliren arteko elkarlanaren emaitza), birtuosismo maximoko koreografia zuten zatietan, dantzari euskaldunen presentzia egiazta daiteke.



Bizkaiko dantzari dantza

(*artazi* posizioa, balet klasikoan *grand battement* denaren baliokidea)

Enrique Jordak idatzitako “*De canciones, danzas y músicos del País Vasco*” liburuan, “itxura konbentzional samarra” duen euskal dantzari bat ateratzen den eta Parisko Arsenal liburutegian dagoen grabatu baten oinean, hauxe irakur daiteke:

A luy voir sauter semelles  
et faire des pas de ballet;  
ne nous semble til pas qu'il ait  
comme Mercure au pieds des ailes?

Viéndole saltar así  
y dibujar pasos de baile,  
¿no parece que tenga  
como Mercurio alas en los pies?

Askotan pentsatu izan dut dantzari egin diogun ekarpen handienetako bat, dudarik gabe, espazioan dantzatzea dela, zeruan zintzilik ari bagina bezala eta inoiz ez lurrean, adibidez, Andaluziako folklorean gertatzen den bezala. Agian horregatik lortu dugu dantza klasikoari ekarpen garrantzitsua egitea –egia esan, gure ekarpen bakarra–. Batetik, dantza klasikoaren errepertorioko pauso jakinetan euskal jatorria aipatzen da (“*saut basque*” eta “*pas de basque*”), eta horretan bakarrak gara; hori harro egoteko modukoa da. Bestetik, ordea, derrigor onartu beharra daukagu nazioartean ezagutzen den ekarpen horixe dela gure ekarpen bakarra. Oso gutxi Pirinioen magalean saltoka bizi den herrialde batentzat.



Herrialde guztietatik dantza klasikoaren terminologiara lotuta sentitzen den bakarra euskalduna dela egia izanda, nolaz ez dugu lortu nazioartean dantzaren munduan nabarmentzea?

## 2 Nazioarte mailako ereduak

---

Seguru asko, Diaghilev izan zen dantzaren munduan antzea definitzen lehena. Haren “Balet Errusiarra” dantzaren munduak begiratzeko erabilitako ispilu izan ziren. Talde ibiltari bat sortu zuen, eta, talde horretan, koreografoaren eta lehen dantzarien irudimena, haren asmatzeko gaitasunarekin, ezustekoarekin eta sormenarekin batera, aurrekaririk gabeko arrakasta lortzeko beharreko osagaiak izan ziren. Ez zuen zerikusirik estatuak finantzatzeko eta teatro finkoetan jokatzeko antolatutako konpainia egonkorrekin. Horrek, dudarik gabe, Fokineri eta Paulovari, Diaghileverei eta Nijinskyri buruzko historia-mota guztiak asmatzeko aukera eman zuen, eta hori ez zen hala gertatuko San Petersburgoko teatro egonkor batean egon izan balira. Bene-benetan, eredu hori ohiz kanpoko maila duten artistak batuta bakarrik lor daiteke, eta zaila izango da dantzaren historian berriro antzeko zerbait gertatzea.



Paulova

Maryninsky teatroak eta hango dantza-eskolak gaur egun herrialde askotan finkatuta dagoen beste eredu bat definitu zuten, Diaghileven Balet Errusiarren filosofiaren aurkakoa erabat. Eredu horretan, estatuaren finantziarioa eta babes pribatua lortzen dira, eta horrek aukera ematen du konpainia profesional bati ordaintzeko eta etorkizuneko dantzarien harrobi izango den dantza-eskolari eusteko. Konpainia profesionala ahalik eta koreografo onenaren inguruan antolatzen da, eta lehen mailako dantzariak kontratatzen dira; gainera, dantza-eskolatik datozen dantzariak ere bidea ematen zaie. Normalean, konpainiaren herrialdeko teatro egonkor batean (bulego eta entsegu-leku gisa erabiltzen dutena) denboraldi finkoa izaten du eta urtean bira batzuk ere egiten dituzte.

Dantza-konpainiaren antolakuntza ulertzeko bi eredu desberdin horiei, ordea, konpainiak eskaintzen duen dantza-mota gehitu behar zaie. Aukerak askotarikoak dira, konpainien arabera. Horrenbestez, dantzaren ikuspegi erabat klasikoa duten konpainiak ikus daitezke, eta beste batzuk ikuspegi garaikidea, ikuspegi modernoa edo balet folklorikoaren ikuspegiak dutenak, guztien konbinazioa eskaintzen duten konpainiak ere egon daitezke.

Nazioarteko dantzaren konpainia-eredu horiek duten garrantzia dela eta, konpainia ospetsuenetako batzuk antolatzeko duten moduari buruzko xehetasun batzuk emango ditugu.

### 2.1 Errege Balet Britainiarra

Agian, 1920. urtea aukera daiteke munduko balet garrantzitsuenetako baten sorrera-prozesuaren hasiera finkatzeko urte gisa. Urte horietan, talde gogotsu batek Dantzaren Errege Akademia sortu zuen, eta, urte berean, Londresen, Marie Rambertek bere eskola ireki zuen, 6 urte geroago Rambert Baleta bilakatu zena.



Bestetik, 1926an, Ninette Valois-koak Arte Koreografikoaren Akademia sortu zuen, eta, horrela, Sadlers Wells Ballet ezagunari bidea ireki zion. Lilian Baylisen egindako lanak eta Markova eta geroago Margot Fonteyn *ballerinak* agertu izanak Britainiar Balet Nazional handiaren (gaur egun Royal Ballet izenez ezagutzen dena) oinarriak sendotu zituen.

Gaur egun, konpainia maila handiko 90 dantzarik osatzen dute, eta zuzendaritza artistikoa Ross Strettonen esku dago.

Horrez gain, baletak une oro euskarri sendoa du, "Royal Ballet School" delakoa hain zuzen ere. Baletarekin batera garatu da eta mundu osoko dantzari onenentzat desagertzen ez den xarma izan du. Eskola horretako ikasleen artean, hauek nabarmen ditzakegu: Margot Fonteyn, Antoinette Sibley, Anthony Dowell, Merle Park, Lesley Collier, David Wall, David Bintley, Darcey Bussell, Jonathan Cope, Alina Cojocar.

Kontuan hartu beharreko beste puntu interesgarri bat Baletaren Elkartearen izatea da; haren helburua konpainiaren euskarri izatea da, batez ere finantza-alorrean.

## **2.2 Monte-Carloko Baleta**

Monte-Carloko Baletak Monakoko Printzerriko konpainia ofizial bilakatu ziren 1985ean, Hannoverko printzesak konpainia horrekin kontaktzeko zuen interesaren ondorioz, eta haren ama Monako Grace printzesaren nahiak kontuan hartuta.

Hala ere, berez, balet handi horren jatorria ez da hain berria: Diaghilevek zuzendutako balet errusiarrek bi biren arteko entseguak Monte-Carlon egiten zituzten garaikoa, hain zuzen. Gutxi gorabehera hogeitaz joan izan ziren hara, 1911tik 1929ra, konpainia desegin arte. 1932an beste konpainia bat sortu zen, batetik, Basilek zuzendutako Monte-Carloko Operako Baletak eta, bestetik, Blumek Parisen zuzentzen zuten Opera Errusiarren Baletak bat egin ondoren. Bi zuzendarien arteko eztabaiden ondorioz, 1936an Monte-Carloko Baleta sortu zen. 1938an Massine zuzendari artistiko bihurtu zenean, konpainiak izena aldatu zuen, eta hortik aurrera Monte-Carloko Balet Errusiarrek izena hartu zuen. Arrakasta handia izan ondoren, konpainia abandonatu egin zuten, eta 1963an desagertu egin zen.

1992an, konpainiak Jean Christophe Maillot kontratatu zuen, hasiera batean aholkulari artistikoaren kargua betetzeko, eta, berehala, konpainiako zuzendari eta koreografo izendatu zuten. Dударik gabe, Monakoko dantzarentzako garai berri baten hasiera izan zen kontratazio hori.

Monte-Carloko Baletekin batera, eta Royal Balleten kasuan bezala, "Monte-Carloko Baleten lagunen elkarte" izenekoa dago, eta haren helburua, batez ere, konpainiari finantza-laguntza ematea da, diru-laguntzak, babesak eta abar lortzea.

Konpainiak entseguak egiteko lekua ere badu, 1997an inauguratutako L'ATELIER izenekoa.

Balet-konpainia baten organigrama osoa ezagutzea interesgarria izaten dela eta, konpainiaren antolakuntza osoa zehatz aipatuko dugu orain (haien web gunetik hartuta):

**Zuzendari koreografoa:** Jean-Christophe Maillot

**Dantzari-taldea:** 42 dantzari (20 gizon, 22 emakume)

**Langile artistikoak**

- ✓ Baletako irakasleak
- ✓ Zuzendariaren laguntzaileak
- ✓ Argi- eta eszena-diseinatzailea
- ✓ Koordinatzaile artistikoa
- ✓ Pianista
- ✓ Musika-aholkularia eta orkestra-zuzendaria

**Administratzailea**

- ✓ Administrazio-laguntzailea
- ✓ Zuzendariaren idazkaria
- ✓ Administratzailearen idazkaria
- ✓ Kontabilitatea

**Komunikazio-saila**

- ✓ Zuzendaria
- ✓ Laguntzailea
- ✓ Jendearekiko harremanak
- ✓ Prentsa

**Kontratuak eta birak**

- ✓ Kontratazio-zuzendaria
- ✓ Idazkaria
- ✓ Biretako managerra

**Sail teknikoa**

- ✓ Zuzendari teknikoa
- ✓ Sail teknikoko laguntzailea
- ✓ Manager teknikoa

- ✓ Agertokiko eta baletoko managerra
- ✓ Argien teknikaria
- ✓ Arotzen burua
- ✓ Jantziak
- ✓ Jantzien saileko laguntzailea
- ✓ Jantzien arduraduna
- ✓ Jantzien arduradunaren laguntzailea
- ✓ Soinu-ingeniaria
- ✓ Fisioterapeutak

### ***Entzunaldiak***

### ***Langile gonbidatuak***

- ✓ Baletoko irakasle gonbidatuak
- ✓ Koreografo gonbidatuak
- ✓ Irakasle gonbidatuak

Organigrama hori, aldaketa batzuk gorabehera, balet-konpainia handi ia guztiek dute. Organigrama hori lan-oinarri gisa har daiteke edozein balet-konpainia martxan jartzeko.

## **2.3 New York City Ballet**

Dударik gabe esan dezakegu New York hiriko baleta Estatu Batuetako artearen historian garrantzi gehien izan duen erakundeetako bat izan dela. Gaur egun balet hori dena Lincoln Kirsteinen ideiatzat jo daiteke. Estatu Batuetako audientziaren nahiei erantzuteko, balet estatubatuar bat imaginatu zuen, hango gazteak munduko balet-irakasle handienen zuzendaritzapean trebatzeko eta ekoizpen berriak egiteko, biran dabiltzan taldeen menpe edo atzerriko artistako kontratatzearen menpe egon beharrean.

Kirsteinek George Balanchine ezagutu zuen 1933an Londresen. Berehala konturatu zen bere ametsetako pertsona ezagutu zuela. Balanchine balet errusiar handien tradizioetik zetorren. Hamar urterekin sartu zen San Petersburgoko Balet Eskola inperialean eta hamazazpirekin graduatu zen. Gainera, pianoa eta konposizioa ikasi zituen. Hogei urterekin Sovietar Batasuna utzi zuen eta Monte-Carloko Baletetan sartu zen Diaghileven eskutik 1924an. 1933an, Balanchinek Ipar Amerikako baletaren oinarri izango zen balet-eskola martxan jartzeko Kirsteinek egindako gonbita onartu zuen.

Lehen urteak nahasiak eta frustrazioz beteak izan ziren. Bigarren Mundu Gerrak ere zuzenean eragin zion baletaren bilakaerari. Kirsten armadan ibili zen eta Balanchine Monte-Carloko Baletetan aritu zen denboraldi horretan. Denboraldi horretan, eskola izatea zen Kirsteinen ametsa bizirik zegoela adierazten zuen gauza bakarra.

Gerra amaitu zenean, Kirsteinek eta Balanchinek Ballet Society sortu zuten eta New York hiriko Musika eta Drama zentroan aurkeztu zuten konpainia. Morton Baum hango zuzendaria txundituta geratu zen. New York Hiriko Baleta, Kirsteinen ametsa, betetzear zegoen.

1948an, Balanchinek Jerome Robbins gonbidatu zuen zuzendari artistikoaren alboko izateko.

Gaur egun, New York State Theater-en (30 milioi dolarreko eraikina) aritzen da konpainia, gutxi gorabehera urtean 23 astez. Eraikina New York hiriak eta estatuak ordaindu zuten, eta 1964an inauguratu zuen konpainiak; orduetik haren egoitza da. Horrez gain, konpainiak udako egoitza du 1966tik, Saratoga Performing Arts Center, hain zuzen ere.

Gaur egun, konpainian 90 dantzari aritzen dira, eta Estatu Batuetako handienetako bat da. 150 obra baino gehiagoko errepertorioa du eta horietako gehienak Geroge Balanchierenak, Jerome Robbinsenak eta Peter Martinsenak dira. New York City Ballet-en eskola ofiziala School of American Ballet da, eta han mundu osotik etorritako 350 dantzarigai aritzen dira. 1990etik Peter Martins da baletoko zuzendaria.

George Balanchinek eta Lincoln Kirsteinek XX. mendeko dantzaren zati garrantzitsu bat diseinatu zuten, zalantzarik gabe. Peter Martinsen zuzendaritzapean, Balanchineren ideiei eusteko ahalegina egin zuen New York City Ballet-ek.

#### **2.4 American Ballet Theatre**

American Ballet Theatre nazioarteko dantza-konpainia nagusietakotzat hartzen da. Gaur egun, Estatu Batuetako lurralde osoan aurkezten ditu bere ekoizpenak, eta 600.000 pertsona ingururen aurrean aritzen egin ditu eta 42 herrialdetan egon da taldea. Horrez gain, nazioartean 15 bira.

Gaur egun Estatu Batuetako Estatu Sailak finantzaturako konpainietako bat da.



American Ballet Theater 1939an sortu zen, balet onenak eszenaratzeko eta koreografo berrien eskutik ekoizpen berriak sortzeko. 1940tik 1980ra Lucia Chasek eta Oliver Smithek zuzendu zuten konpainia, eta horiekin balet klasiko handi guztiak jokatu zituzten eta XX. mendeko koreografo onenen (besteak beste, George Balanchine, Antony Tudor, Jerome Robbins, Agnes de Mille eta Twyla Tharp) ekoizpen berriei ere leku egin zieten.

1980an Mikhail Baryshnikov kontratatu zuten American Ballet Theater-en zuzendari artistiko izateko; Baryshnikovek tradizio klasikoa sendotu zuten eta berak berriro eta egokitutako balet klasiko ugari eszenaratu zuten. 1990ean, Jane Hermannek eta Oliver Smithek M. Baryshnikov-en lekua hartu zuten, eta haiek, iraganeko tradizioei eusteaz gain, berrikuntzaren aldeko apustu garbia egin zuten eta dantzaren munduko espresio-bide berriei leku egin zieten.

1992ko urritik, konpainiako dantzari izandako Kevin Mckenziek zuzentzen du American Ballet Theater.

Industria pribatuak ekarpen handia egin zuten finantziazioari dagokionez (United Airlines, UBS Paine Webber, Movado Watch Company, Baldwin, Freed...), eta finantziazio publikoa ere badute (National Endowment for the Arts eta New York State Council on the Arts).

American Ballet Theater artearen eta industriaren munduko pertsona ospetsuek osatutako kontseilu batek zuzentzen du; kontseilu horretako ohorezko lehendakari sona handiko jendea izan da, esate baterako, Jacqueline Kennedy Onassis.

## 2.5 San Frantziskoko Baleta

San Frantziskoko Baleta 1933an sortu zen eta Estatu Batuetako lehen balet-konpainia profesionala da; horrez gain, herrialde hartan baletoko ekoizpen klasiko ospetsuak (adibidez, "*Intxaur-hauskailua*" edo "*Beltxargen aintzira*") osorik jokatzen lehena izan zen. Hasiera batean, dantzariek ere parte hartzen zuten opera-ekoizpenetarako euskarri gisa sortu zen konpainia.

Hala ere, 1938an Willam Christensen maisua iritsi zenetik, hasierako helburu hura aldatzen joan zen eta baleta bilakatu zen konpainiaren helburu nagusi.

1944an konpainia erabat bereizi zen operatik eta San Frantziskoko Baleta izena hartu zuten. San Frantziskoko Balet Eskola ere garai horretan jarri zen martxan eta Harold Chirsitensen-en anaia zen zuzendari artistikoa. Hogeita hamahiru urtez zuzendu zuten eskola hori.

1974an konpainiak bere historiako unerik latzenei egin behar izan zien aurre eta ia behea jo zuten. Baina "*Save Our Ballet*" kanpainak salbatu zuten baleta, konpainiak eta komunitateak kanpaina horri emandako erantzunarengatik.

Urte horretan bertan Richard E. LeBlond San Francisco Ballet elkarteko lehendakari eta manager nagusi lanerako kontratatu zuten; hark plan estrategiko bat egin zuten konpainiarako eta 18 hilean finantziazio aldetik normaltasunera itzuli ziren.

1985ean, Helgi Tomansson zuzendari artistiko gisa sartu zenean, San Frantziskoko Baletaren garai berri bati eman zitzaion hasiera. Konpainiaren 54. denboraldian, Tomassonek (XX. mendeko koreografo onenetakoa izan zen George Balanchineren dantzari izan zena) Intxaur-hauskailuaren laugarren ekoizpena eta ikusgarriena egin zuten.

<http://www.sfballet.org/about/history/> - top

Gaur egun, konpainian 70 dantzari aritzen dira eta Estatu Batuetako hiru konpainia handietako bat da. San Frantziskoko Balet Eskola Tomassonek zuzentzen du eta Gloria Govrin da haren albokoa; eskola horretara herrialde guztietako ikasleak joaten dira, eta, gutxi gorabehera, urtean 325 ikasle trebatzen dituzte.



San Frantziskoko Baletak 13,8 milioi dolarrean baloratutako eraikin bat du, 1983an inauguratua, eta entseguetarako lokal gisa erabiltzen du; horrez gain, konpainiaren eta balet-eskolaren egoitza ere bada.

Urtean 100 bat emanaldi egiten ditu konpainiak. Koreografo garrantzitsuenek zuzendari artistikoaren gonbitari erantzuten diote eta San Frantziskoko Baletak estreinatutako koreografia berriak egiten dituzte.

Kontuan hartu beharreko datu garrantzitsuetako bat da San Frantziskoko Baletaren aurrekontuaren erdia dohaintza partikularrekin estaltzen dela.

Amaitzeko, aipatu beharra dago Lucia Lakarra euskal dantzaria 2002. urtera arte konpainia honetako lehen dantzaria izan dela.

## **2.6 Espainiako Balet Nazionala**

1978an, Kultura Ministerioko Antzerki eta Ikuskizunen Zuzendaritza Nagusiak Espainiako Balet Nazionala sortu zuen, eta Antonio Gades izendatu zuen zuzendari titular. Hasiera-hasieratik, Gadesen asmoa espainiar sortzaileen lan adierazgarrienak berriro kaleratzea izan zen. Horrela, besteak beste lan hauez osatutako errepertorioa sortu zen: Mariemmarek "Diez melodías vascas" eta "Fandangoa", Antonioren "Fantasia galaikoa", Pilar Lópezek "Aranjuezko kontzertua", Rafael Aguilerreren "Rango" edo Gadesen beraren "Odol-ezteiak".

1980an zuzendari artistiko izendatu zuen Antonio, eta errepertorioan bere koreografia batzuk sartu zituen: "Hiru puntako kapela", "Amodio sorgina", "Soler Aitaren sonatak" eta "Estanpa flamenkoak".

1983an, Musika eta Antzerki Zuzendaritza Nagusiak bi balet-konpainia egonkorrek – Espainiako Nazionala eta Nazional Klasikoa– elkartu egin zituen, eta haren zuzendaritza María de Ávilaren esku utzi zuen. Hark erreperitorioan benetako estreinaldiak sartu zituen, koreografia eta musika originalekin (adibidez, Alberto Lorcaren "Erritmoak", Miguel Narrosen gidoia duen eta Jose Graneroren koreografia duen "Medea", edo Mariemmarek "Dantza eta bonbazia").

1986ko irailean, María de Ávilak zuzendaritza utzi zuen eta konpainia bi talde independente izatera pasatu zen berriro. Lehendik zuzendariaren alboko izan zen Jose Antonio izendatu zuten Espainiako Balet Nazionalako zuzendari artistiko. Etapa horretan, Manuel de Fallaren "Hiru puntako kapela" lanaren bertsio berria egin zuen, Picassoren dekoratuen jatorrizko berregitearekin, "Soleá" edo "Don Juan" Miguel Narrosen gidoiarekin.

1993an, INAEMek zuzendaritza artistiko koordinatua izendatu zuen, Aurora Ponsel, Nana Lorcak eta Victoria Eugeniak osatutakoa, hain zuzen. Ekipo berri horrek, besteak beste, koreografia hauek sortu zituen: Jose Graneroren "La Gitanilla", Victoria Eugeniaren "Nire kasa", Currilloren "Erritmo eta konpasera" eta Antonio Canalaren "Garrasia".

1998an, Hezkuntza eta Kultura Ministerioak Aida Gomez dantzaria izendatu zuen zuzendari artistiko. 1999. urtean, Espainiako Balet Nazionalak programa berri bat egin zuen milurteko berriari begira. Besteak beste, lan hauek ditu: suite flamenko bat, "Oripandó" koreografo gazteek sortua; "Carmen" mitikoaren bertsio berri bat, Jose Antoniok sortua, eta Dorantesen musika duten bi obra, Aida Gomezzen "Semblanzas" eta "Itsu-itsuan" –Antonio Canalesek espresuki Aida Gomezentzat sortutako lana–.

2000. urtean, lau koreografia berri estreinatu zituzten: "Mirabrazo" eta "Bakardadea", Antonio Canalesen ezaugarriekin egin; "Nereidak" Antonio Najarroren koreografia, Dantza espainiar eta flamenkoaren koreografiaren 1999ko lehiaketa irabazi zuena eta "Bakarrik gaude", José Granerorena, 1982an estreinatua eta Espainiako Balet Nazionalak berreskuratua.

2001eko martxoaren 12an, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak, Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionalak (INAEM) proposatuta, Elvira Andrés izendatu zuen balet nazionalako zuzendari artistiko. Hura hasi zenetik, Balet Nazionalak Portugalen, Brasilen, Turkian eta Japonian erakutsi ditu bere koreografiak; "Madrid en Danza" jaialdian parte hartu du, eta Espainiako plaza asko bisitatu du. Denboraldi honetan, Espainiako Balet Nazionalak lan hauek estreinatuko ditu: "Fuenteovejuna" Antonio Gadesen koreografiarekin, "Aranjuezko kontzertua" Pilar Lópezzen koreografiarekin (Rodrigo maisuari egindako omenaldia, Pilar Lópezek 1952an sortutako izen bereko koreografia berreskuratzen duena) eta "Emakumeak", Elvira Andrésen koreografia.

Gaur egun, Espainiako Balet Nazionalan 52 bat dantzari aritzen dira, eta Andaluziako folklorea da konpainiak eszenaratzen dituen koreografia gehienetako inspirazio-iturria.

## **2.7 Víctor Ullateren Baleta**

1988an sortu zuen balet hau Victor Ullate koreografo eta dantzariak; Arriaga Antzokian egin zuen debuta 22 dantzariarekin eta arrakasta handia izan zuen. Konpainia finkatu egin da, bai espainiar estatuan, bai nazioartean, eta erreperitorio zabala du. Erreperitorio horretan, koreografia klasikoak eta garaikideak egiteaz gain, folklorea teatrorantz egokitzea bilatzen du. Beste konpainia batzuetan bezala, Dantza-eskola eta Fundazioa ditu.



Victor Ullate Baletak izandako arrakastaz gain esan beharra dago Baletaren harrobi den Victor Ullate Dantza Zentroan trebatutako gazte asko eta asko une honetan nazioartean ospe gehien duten dantzariak direla, atzerrian arrakasta izaten ari direnak, eta horixe da zentro horretan emandako trebakuntzaren kalitatearen eta profesionaltasunaren bermea. Horien artean, Igor Yebra eta Lucia Lakarra dantzari euskaldunak daude.

## 2.8 Dantza Konpainia Nazionala

Dantza Konpainia Nazionala 1979an sortu zen, Espainiako Balet Nazional Klasikoa zuzenarekin, eta lehen zuzendaria Víctor Ullate izan zen.

1983ko otsailean, María de Avila izendatu zuten Balet Nazionalaletako –espainiarra eta klasikoa– zuzendari, eta hark sistematizatu zuen baleteko barne-lana eta ahalegin berezia egin zuen George Balanchine, Anthony Tudor eta beste batzuen koreografieiei ateak irekitzeko. María de Avilak, gainera, Ray Barra Espainian bizi den dantzari eta koreografo iparramerikarrari eskatu zizkion koreografiak, eta, ondoren, zuzendari egonkorraren kargua eskaini zion; kargu horretan 1990 arte egon zen.

1987ko abenduan, Maya Plisetskaya errusiar dantzari bikaina izendatu zuten baleteko zuzendari artistiko.

1990tik, Dantza Konpainia Nazionalak, Nacho Duato zuzendari artistiko zela, ibilbide berri bati ekin zion. Kritikaren goraipamenak, jendearen harrerak eta lan-proposamen ugariak berresten dute konpainiak nazioarteko dantzaren munduan duen etorkizuna. Gaur egun 35 dantzari profesional dabilta konpainian.

## 2.9 Biarrizko Baleta

Biarrizko Baleta Biarrizko Udalaren, Kultura Ministerioaren eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorraren ekimenaren ondorioa da; 1988ko irailean sortu eta inauguratu zen koreografia-zentro hau eta gaur egun Biarrizko erdiguneko geltoki zaharrean aritzen da taldea.



Biarrizko Baleta

Gaur egun koreografia-zentroa Thierry Malandain koreografoak zuzentzen du. Baletan 15 dantzari profesional aritzen dira.

Garrantzitsua da aipatzea 2000ko apirilean Gipuzkoako Foru Aldundia proiektu honi diru-laguntza ematen hasi zela, haren egonkortasuna eta aurrerabidea bermatzeko.

Gure proiekturako erreferentzia gisa garrantzitsua izan daitekeelakoan, Biarrizko Baletaren aurrekontua adieraziko dugu:

Frantziako Kultura Ministerioa	225.390 €
Biarrizko Udala	75.130 €
Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia	75.130 €
Akitaniako Eskualde Kontseilua	75.130 €
Gipuzkoako Foru Aldundia	75.130 €
Europako Batasuna	75.130 €
Biarrizko Baletaren beraren funtsak	300.520 €

**Guztira: 901.560 €**

### **3 Euskal Herriko dantzaren gaur egungo egoeraren diagnostikoa**

---

Ez dago gauza asko esateko Euskal Herriko dantzaren gaur egungo egoerari buruz; bakar-bakarrik baieztatu daiteke emandako pauso guztiak, txikiak izanda ere, hobetzeko izango direla. Ez dago maila altuko konpainiarik, agian Biarrizko Baleta da salbuespen bakarra, eta ez dago dantzaren munduan karrera profesionala erraz dezakeen egitura antolatutik.

Baina egia da herrialde askotan daudela euskal dantza lantzen duten taldeak, eta kasu askotan ikuskizun oso interesgarriak eskaintzen dituzte, ez dantzarien kalitate artistikoarengatik, baizik eta haien zuzendarien ahaldunen sortzailearengatik. Esate baterako, Bittor Olaetak eta Juan Antonio Urbeltzek ekarpen interesgarria egin diote euskal dantzaren munduari, abiapuntu gisa euskal dantza tradizionala hartuta.

Esan beharra dago Euskal Herrian egindako jatorrizko koreografia gutxik izan dutela oihartzuna nazioartean. Atal honetan, orain dela urte asko Olaeta Baletak Ameriketako Estatu Batuetan egindako birak aipa daitezke.

Konpainia amateurren esperientziak ere badaude, baina funtsean haien oinarria konpainiako kideek dantzarekiko duten interesa eta maitasuna da. Hala ere, agian, haien jardura definitzeko adjetiborik egokiena eskasia da. Atal honetan, besteak beste, Bilboko Dantzaldia antolatzen duen La Fundición erakundearen babesean egindako jarduerak nabarmen daitezke.

Alderdi positibo gisa esango dugu dantza-talde eta musika-eskolen sare zabala dagoela Euskal Herrian, eta sare hori behar bezala erabil daiteke, horretatik abiatuta, dantzarako karrera profesionalizatzea erraztuko lukeen azpiegitura sortzeko.

Beste alderdi positibo bat da jendeak dantzarekiko duen gustua eta interesa. Euskaldunoi dantzariak dantzatzeko gustatzen zaigu eta izugarri gozatzen dugu emanaldi-mota guztiekin, bai tradizionalekin, bai abenturarik abanguardistekin. Gure antzokietan programatzen diren dantza-ikuskizun guztiek normalean harrera bikaina izaten dute jendearen aldetik. Gainera, jendeak interes handiz hartzen ditu izaera tradizionaleko ikuskizunak eta gure herrietako plazak eta frontoiak bete egiten dira.

Orain arte esandakoaz aparte, ez da ahaztu behar euskal dantzariak nazioarteko konpainia onenetan duten lekua. Esate baterako, **Lucia Lakarra** (San Frantziskoko Baletako lehen dantzari ohia, eta, gaur egun, Munich-eko Operako Baletan ari dena), **Asier Uriagereka** (Monte-Carloko Baletan lehen dantzaria), **Igor Yebra** (nazioarteko balet konpainia garrantzitsuenek gonbidatutako dantzaria), **Mónica Zamora** (Birmingham-eko Errege Baletan lehen dantzaria)... izenak entzunda, pentsa dezakegu, etorkizuneko gure dantzarien oinarriko trebakuntza zainduz gero eta haien karrera profesionalari lagunduz gero, nazioartean ospetsuak izango diren dantzaririk ez dugula faltako.

Horrez gain, orain dela gutxi prentsaren bidez jakinarazi den ekimena ere nabarmendu behar dugu; izan ere, Donostian balet gaztea sortu nahi da, Biarrizko Baletaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko harremanari esker.

Laburpen gisa, Euskal Herriko dantzaren egoera honela defini daiteke:

- ✓ Ez da ia konpainia profesionalik.
- ✓ Euskal dantza tradizionalen taldeen sarea zabaldua dago Euskal Herri osoan.
- ✓ Musika-eskolen sarea zabaldua dago Euskal Herri osoan.
- ✓ Esperientzia amateur interesgarri batzuk badaude.
- ✓ Jatorrizko koreografia gutxi egin dira; egin direnek gutxitan lortu dute nazioartean presentzia izatea.
- ✓ Jendearen aldetik, dantzarekiko interesa eta gustua handiak dira.
- ✓ Ospe handiko euskal dantzariak daude nazioarteko konpainia onenetan.

Labur esanda, esan daiteke egoera oso txarra dela. Hala ere, guztia egiteko dago, eta hori beti da benetan erakargarria. Euskal Herriko dantzaren mundua aurrean izan dezakegun erronkarik politenetakoa da. Egin dezagun ahalegina Euskal Herriko dantzari nazioarteko irteera profesionala eskaintzeko. Dударik gabe, merezi du.

### 3.1 Adierazleen proposamena

Gaur egungo egoera eta haren bilakaera ebaluatzeko, hainbat adierazle proposatzen dira; adierazle horien bidez, dantzaren gaur egungo egoera hainbat alderditatik aztertu nahi da: balet-konpainiak egotea, dantzan inbertitutako diru-kopurua, dantza aztertze dantzariak eta azpiegiturak izatea, koreografoak... Hauek dira proposatutako adierazleak:

1. Nazioartean presentzia duten dantza-konpainia profesionalen kopurua.
2. Dantza-konpainia amateurren kopurua.
3. Nazioarteko konpainietan ari diren euskal dantzari profesionalen kopurua.
4. Estatuko konpainietan ari diren euskal dantzari profesionalen kopurua.
5. Dantzarekin lotutako jardueretarako diru-laguntza publikoa.
6. Euskal dantza herrikoiarekin lotutako jardueretarako diru-laguntza publikoa.
7. Enpresa pribatuek dantzari egindako ekarpena mezenasgo gisa.
8. Partikularrek egindako ekarpena.
9. Baleta sustatzea helburu duten elkarten eta fundazioen kopurua.
10. Nazioarteko konpainietan ari diren euskal koreografoen kopurua.
11. Estatu mailan ari diren euskal koreografoen kopurua.
12. Nazioarteko kritikaren txaloak jaso dituzten euskal jatorriko koreografiaren kopurua.
13. Musika-eskola publikoetako azpiegiturretan dabiltzan baletoko ikasleen kopurua.
14. Dantza klasikoa ematen duten zentro publikoen, musika-eskolen eta kontserbatorioen kopurua.
15. Dantzari profesionalen kopuruaren eta baletoko ikasleen kopuruaren arteko erlazioa.
16. Balet-akademia pribatuetatik irtenda sortu diren dantzari profesionalen kopurua.
17. Urte osoan, gure antzokietan balet-egitaraua dagoen egun-kopurua.
18. Balet-egitaraua dagoen egunetan antzokietan izaten den batez besteko okupazioa.

## 4 Hausnarketa

---

### 4.1 Helburuak eta lehentasunak

Lortu beharreko helburua hauxe da: ***gure dantzari eta koreografo profesionalen irtenbidea emango dien balet-konpainia bat sortzea, eta, era berean, konpainia hori nazioartean ospea duten dantzariantzat eta koreografoentzat erakargarria izatea.***

Helburu hori lortzeko, bi alderdi lehenets daitezke, batetik, dantzaren munduan *karrera profesionala egitea ahalbidetuko lukeen azpiegitura* sortzea eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegorako *dantza-konpainia profesionala zein motatakoa izatea nahi dugun diseinatzea*.

Nire ustez, bi lehentasun horiek maila berean daude; baina badirudi argi dagoela, gure dantzarietara irtenbidea emango liekeen dantza-konpainia profesional bat izanez gero, zailagoa izango litzatekeela trebakuntzarako azpiegitura egokia sortzea. Ikasleen ilusio falta erabakigarria izan daiteke, inguruan irtenbide profesionalik ikusten ez badute.

## 4.2 Jarduera-ildoak

Planteatutako helburua lortzea erronka erakargarria da, eta, era berean, zailtasunez beteta dago. Oso garrantzitsua da zein konpainia-mota jarri nahi dugun martxan definitzea. Nazioartean ospe eta maila handiko konpainiak izateak pentsarazten digu benetan merezi ote duen ahalegina egitea, edo hobe izango litzatekeen –baita merkeagoa ere– dirua haiek kontratatzen gastatzea eta haien ikuskizunez gozatzea. Beraz, erabakigarria da gure konpainiaren ezaugarri bereizlea, guk bakarrik sor dezakegun hori, definitzea.

Lehenago esan dugu adierazpide guztietan estimatzen duela dantza euskal gizarteak. Hala ere, nire ustez, ezinbestekoa da dantzaren kultura ahalik eta gehien zabaltzea. Horregatik, nahitaezkoa da beharrezkoa den gutxieneko kultura ere sustatzea, batez ere haurren eta gazteen artean, baleta are ezagunagoa izan dadin eta jende guztiak maita dezan.

Horregatik, jarduera-ildo hauek proposatzen dira:

- ✓ Zein balet-konpainia nahi dugun definitzea.
- ✓ Balet-konpainia sortzea.
- ✓ Dantzarien harrobia sortzeko behar den azpiegitura definitzea.
- ✓ Behar den azpiegitura behar denean sendotzea eta sortzea.
- ✓ Oro har, jendearen baleterako interesa piztea, eta, horretarako, gure antzokietara ospe handiko konpainiak ekartzea.
- ✓ Haurren eta gazteen baleterako interesa sustatzea.

## 4.3 Proiektuak

#### **4.3.1 Euskal Baleta definitzea eta sortzea**

Egin beharreko lehen proiektua da gure herrialdearentzako balet-konpainia definitzea. Uste dut proiektu horrek epe motzekoa izan beharko lukeela eta lehenbailehen egin beharko litzatekeela. Aurreko atalean aipatu da proiektu horrek ezaugarri bereizleren bat izan beharko lukeela, besteengandik bereiziko duena. Zehatza izateko asmorik gabe, nire ustez, proiektuaren ezaugarri nagusiak izan behar dutenak aipatuko ditut ondoren; hala ere, gai hau erabat eztabaidatzekoa da eta ideia gehiago ere landu daitezke, txostena aurkezten denean. Dena den, eta aipatu ditugun baleten historiak adierazten digunez, pertsona gogotsu baten beharra ezinbestekoa da proiektua bideratzeko. Hauek dira etorkizuneko gure konpainiak izan beharko litzuzkeen ezaugarriak:

##### ***Nazioarteko bokazioa***

Gure balet-konpainia epe motzera nazioarteko zirkuituetan onartua izateko helburuarekin jarri behar da martxan.

##### ***Ospea duen zuzendari artistiko bat kontratatzea***

Balet-konpainia bat martxan jartzea haren zuzendari artistikoaren gaitasunen mende dago, hain zuzen ere, bere koreografiak eszenan jartzeko, koreografo ospetsuek konpainiarentzako koreografiak egitea lortzeko eta kalitateko dantzariak erakartzeko duen gaitasunen mende. Ildo horretatik, zuzendari artistikoaren kontratazioa funtsezkoa izango da proiektuaren garapenean.

##### ***Dantzariak erakartzea***

Euskal Autonomia Erkidegoan oraindik balet-eskolari ez dagoenez eta kontserbatorioetako eta musika-eskoletako azpiegiturak errentagarri bihurtzeko aukerarik ere ez dagoenez, dantzariak erakartzea konpainiaren zuzendari artistikoaren mailaren eta ospearen mende dago. Konpainia hori erakargarria izango da dantzarientzat, baldin eta zuzendari artistikoa erakargarria bada haientzat. Konpainia egonkortuta dagoenean eta harrobia martxan dagoenean, eskolatik bertatik hartutako dantzariekin eta fitxatutako eta/edo gonbidatutako dantzariekin osatu behar da konpainia.

##### ***Eskaini beharreko koreografia-mota***

Nire ustez, hauxe izan daiteke gure konpainiak dantzaren munduari eskaini diezaiokeen nortasunaren seinaleetako bat. Zuzendari artistikoak egoki derizkion koreografia klasiko, garaikide, moderno eta abarrez gain, euskal folklorea etengabe bilatzeak inspirazio-iturri izan behar du gure baletak egin beharreko koreografia batzuetarako. Gu gara gure folklorea eta ohituren edertasuna eta berezitasuna, dantzaren bidez, hobekien ustia dezakegunak. Ahal dugu eta, gainera, egin behar dugu. Hala ere, kontratatu aurretik zuzendari artistikoarekin negoziatu beharreko gaia da hori.

##### ***Beharrezkoak diren langileak kontratatzea***

Konpainiako langileen organigrama diseinatu beharko da, eta, ondoren, kontratatu egin beharko dira. Erreferentzia asko daude. Txosten honetan Monte-Carloko Baleten organigrama azaldu da. Hainbeste anbizio izan gabe ere, hasiera-hasieratik gutxienezko langile-kopurua kontratatzea beharrezkoa da.

### ***Entseguak egiteko lokala***

Entseguak egiteko lokal egonkor bat eta ekoizpenak aurkezteko erreferentziatzko antzoki bat izan beharko ditu konpainiak.

### ***Balet-eskola***

Konpainiak balet-eskola izan beharko du, eta, eskola horretan, akademietako, musika-  
-eskoletako edo kontserbatorioetako dantzari onenen artean aukeratutakoek haien teknikak  
hobetu ahal izango dituzte eta dantzari profesional bihurtu ahal izango dira. Horrek esan nahi  
du etorkizuneko gure dantzariak trebatzeko lokal eta langile egokiak eduki beharko direla.  
Eskolak haurren/gazteen trebakuntzari ere erreparatu beharko dio.



***Balet-eskola***

### ***Euskal Baletaren Lagunen Fundazioa***

Ohikoa den bezala, gure balet-konpainiak aurrekontuak koadratzeko arazoak izango  
ditu unerren batean. Horregatik, funtsezkoa da konpainiarekin berarekin batera Euskal Baletaren  
Lagunen Fundazioa sortzea. Fundazio horren helburu nagusia erakunde publiko eta  
pribatuetatik funtsak lortzea izango litzateke, konpainiari finantza-egonkortasuna emateko.



### 4.3.2 Dantzariak trebatzeko azpiegitura egokia definitzea eta sortzea

Balet-konpainia garrantzitsu guztiek dute konpainiarekin lotutako balet-eskola. Gure kasuan, euskal baleta sortzeko proiektuan ere jasotzen da haren babesean eskola bat sortzea. Hala ere, nire ustez hori ez da nahikoa. Euskal Herrian musika-zentro, kontserbatorio eta dantza tradizionalen taldeen sarea badago eta hori ustiatzeko gai izan behar dugu. Gaur egun, gutxi dira balet klasikoa eskaintzen duten musika-eskola edo kontserbatorioak. Onartzen dut eztabaidagarria izan daitekeela ikasle guztientzako oinarri gisa dantza klasikoa aukeratzea. Hala ere, nire ustez, teknika klasikoa menderatzen duena prestatuta dago beste edozein dantza-motatarara salto egiteko. Beti ez da alderantzizkoa gertatzen. Horregatik, erabilgarri dauden baliabideak berriro erabiltzeko proiektua proposatzen da; horren barruan, jarduera hauek sartuko lirateke:

- ✓ Dantza klasikoko irakasleak trebatzea.
- ✓ Musika-eskola eta kontserbatorio tekniko guztietan dantza klasikoa ematea, gure folkloreak oinarritzko ezaupideekin batera.
- ✓ Dantza tradizionalerako taldeei dantza klasikoaren oinarritzko teknikak erakutsiko dizkieten irakasleak eskaintzea.

### 4.3.3 Baletari buruzko sentsibilizazio-kanpaina egitea

Dantzarekiko interesa eta gustua egon badagoen arren, jendeak ez du baletari buruzko ezaupiderik. Askok ez dakite zer dagoen balet-ikuskizunen atzean, eta, zenbaitek, dantzariak eszenan erraz mugitzen direla ikusita, erraza dela ere uste du. Baleta ahalegin eta sakrifizio asko eskatzen duen bizimodua da. Azkenaldian, txikiak musika klasikora eta operara gerturatzeko eta horiek txikiak artean hedatzeko kanpainak egin izan dira. Uste dut baletarekin antzeko zerbaitekin egin beharko litzatekeela.

Baleta hedatzeko proiektu bat egitea proposatzen dugu; horren barruan jarduera hauek egin beharko lirateke:

- ✓ Gure antzokietara konpainiak ekartzea eta jardunaldi irekien kanpainak antolatzea.
- ✓ Jendeari eta, bereziki, heziketa-zentroei dantza klasikoaren teknikak erakustea.
- ✓ Koreografia bat nola egiten den erakustea.
- ✓ Eskoletan dantzari buruzko dibulgaziozko hitzaldiak antolatzea.

## 5 Erreferentzia bibliografikoak

---

1. Cyberdance: Ballet on the net. [www.cyberdance.org](http://www.cyberdance.org)
2. Bizkaiko dantzak. [www.dantzak.com](http://www.dantzak.com)
3. Enrique Jorda. *“De canciones, danzas y músicos del País Vasco”*. La Gran Enciclopedia Vascaren 13. bolumen bereziaren edizioa. 1978. ISBN 84-248-0341-8.
4. Alexander Bland. *“A history of Ballet and Dance”*. Praeger Publishers argitaletxea. 1976. ISBN 0-275-53740-4.
5. *“Enciclopedia del Arte Coreográfico”*. 1981. Aguilar argitaletxea. ISBN 84-03-40075-6.
6. Jacqueline Challet-Haas. *“Manuel pratique de danse classique”*. 1997. Amphora argitaletxea. ISBN 2-85180-328-X.

Iñaki Goirizelaia Ordorika  
Bilbo, 2002ko urria